Aurkeztu beharreko dokumentazio administratiboa eta teknikoa.

a) Dokumentazio orokorra:

- Jardueren memoria honako eduki honekin:
  - Eranskinean katalogatutako baliabide turistikoak seinaleztatzeko proiektuak gauzatzeko, erakunde eskatzaileak egin duen seinaleztapen-proposamena.
  - Eranskinean katalogatutako baliabide turistikoen inguruan mugikortasun turistiko iraunkorrerako alternatibak diseinatu, hobetu edo ebaluatuko dituzten seinaleztapen-azterlanak garatzeko, erakunde eskatzaileak egindako proposamena, azterlanaren edo proiektuaren ildo nagusiak garatzen dituena.
- Memoria ekonomikoa honako zehaztasun hauekin:
  - Gastuen zerrenda, BEZaren xehetasunekin, sinatutako BEZarekiko egoera-aitorpenaren arabera.
  - Diru-sarreren zerrenda.
  - Hartzekodunaren fitxa, behar bezala beteta (hala badagokio).
  - Hala badagokio, hornitzaileen hiru eskaintzak, diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoak kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gainditzen dituenean.
- Eskabideak aurkezteko epean, erakundeak esleipen ekonomikoko jarraibideetan adierazitako puntuazioa lortzeko egokitzat jotzen dituen agiriak eta datuak aurkeztuko ditu.

b) Eranskinean katalogatutako baliabide turistikoak seinaleztatzeko proiektuak gauzatzeko dokumentazio espezifikoa:

- BFAren Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako sailaren baimena errepideen sareko edo bizikleta- ibilbidetako seinaleztapen turistikorako
- Udal-bideetako bizikleta-ibilbideetan, udal-organo eskudunak emandako baimena.
- Bidezidorretan:
  - Bizkaiko Mendizale Federazioaren behin-behineko baimena.
  - Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren baimena.
- Titularra Bizkaiko Foru Aldundia ez den bideetarako, azpiegituraren titularraren baimena..

Nolanahi ere, nahikoa izango da dirulaguntza eskatzeko unean dagokion baimena eskatu izana egiaztatzea.